## OÑATIKO UDALA

### Iragarkia

*Kultura Departamenduak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren diru laguntzen 2021eko deialdia BDNS ( Identif): 553097*

Toki Araubideko Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.2.m artikuluak dio Udalerriak kultur arloko jarduera zein instalazioetan eskumenak beteko dituela, betiere, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan. Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun Legeak (27/2013 legea, abenduaren 27koa) 7/1985 Legeko 25.m artikuluan udalerrien eskumen propio gisa arautzen du kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak.

Halaber, Lege bereko 72. Artikuluak dio Toki Korporazioek beraien herritarren interes orokorreko edo sektorialeko defentsarako elkarteen garapena sustatu behar dutela eta, duten aukeren barruan, bitarteko publikoen erabilera eta beraien jardueren garapenerako diru-laguntzen lorpena.

Kultura Departamentuak 2020-2024 Gobernu Programaren barruan kultur politikari dagozkion ekintzak ezarri ditu, indarrean diren ekintza lerroak osatzen dituztenak.

Udal Plenoak 2018ko otsailaren 22ko bileran, Kultura Departamenduak kudeatzen dituen programen kontura emango diren dirulaguntzen oinarria arautzaileak onartu zituen eta 2018ko martxoaren 13ko dataz argitara eman ziren Gizpuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (51 zenbakian).

Orain Kultura Batzordeak kultur proiektuak eta programak eta sormen lanak gauzatzeko dirulaguntzak emateko 2021eko deialdi proposamena bidali du.

## AYUNTAMIENTO DE OÑATI

### Anuncio

*Convocatoria 2021 de subvenciones con cargo a los programas gestionados por el Departamento de Cultura. BDNS ( Identif): 553097*

La ley de Bases de Régimen Local 7/1985 en el artículo 25.2.m dice que el Municipio ejercerá, en todo caso, competencias, en los términos de la legislación del Estado y de las CCAA en actividades o instalaciones culturales. La Ley 27/2013 de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local que modifica la Ley 7/1985, en su artículo 25.m atribuye como competencia propia de los municipios la promoción de la cultura y equipamientos culturales

Asimismo el art, 72 de la misma Ley dice que las Corporaciones Locales han de favorecer el desarrollo de las asociaciones para la defensa de los intereses generales o sectoriales de los vecinos y dentro de sus posibilidades, el uso de medios públicos y el acceso a las ayudas económicas para el desarrollo de sus actividades.

El Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Oñati dentro de su Programa de Gobierno 2020-2024 ha establecido las acciones correspondientes a la política cultural en dicho periodo, que complementan las líneas de actuación ya consolidadas.

En Pleno celebrado el 22 de febrero de 2018, se aprobaron las «Bases reguladoras de la concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por el Departamento de Cultura». Las Bases están publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 13 de marzo de 2018 (n.º 51).

El Departamento de Cultura ha enviado la propuesta de la convocatoria de 2021 para la concesión de subvenciones para la realización de proyectos y programas culturales así como para la realización de trabajos de creación cultural.

Gaia aztertu ondoren eta Kultura zein Ogasun Batzordeen irizpideak aldekoak direla kontuan hartuz, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 4ko bileran, aho batez erabaki du aipatutako deialdia egitea:

ERABAKITZEN DU.

Lehenengo.

Onartzea jarraian ageri diren dirulaguntza lerroen 2021eko deialdia:

1.- Kultur proiektuak eta programak gauzatzeko
2.- Oñatiko udalerriko irabazi-asmorik gabeko taldeek garatuko dituzten kultur sormen lanak egiteko

Bigarren.

Onartzea aipatutako diru laguntzen 2021eko deialdia.

Finantziazioa.

1.1 Kultur proiektuak eta programak gauzatzeko 2021eko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, guztira hirurogeita sei mila euroko(66.000) gastua baimentzen da, 1.0800.480.334.0001.2021 (355) kontu sailaren kargura.

1.2.- Oñatiko udalerriko irabazi-asmorik gabeko taldeek garatuko dituzten kultur sormen lanak egiteko 2021erako onartzen da hamalau mila euroko ( 14.000) gastua baimentzen da, 1.0800.480.334.0001.2021 (355) kontu sailaren kontura.

2. 2021eko eskaerak aurkezteko epea.

Hilabeteko epean, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari.

Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta

En su virtud, en sesion celebrada el día 4 de marzo de 2021, la Junta de Gobierno ha decidido por unanimidad y teniendo en cuenta que los criterios del Departamento de Cultura y Hacienda son favorables, realizar la convocatoria correspondiente:

ACUERDA

Primero.

Aprobar la convocatoria correspondiente a 2021 de las citadas subvenciones:

1.- Para realización de proyectos y programas culturales
2.- Para la realización de trabajos de creación cultural por grupos sin ánimo de lucro del municipio de Oñati

Segundo.

Aprobar la convocatoria correspondiente a 2021 de las citadas subvenciones.

Financiación.

1.1.- Para realización de proyectos y programas culturales
Para las subvenciones correspondientes al ejercicio presupuestario 2021, se autoriza un gasto por importe total de sesenta y seis mil (66.000 ) euros, con cargo a la partida presupuestaria 1.0800.480.334.0001.2021 (355)

1.2- Para realización de de trabajos de creación cultural por grupos sin ánimo de lucro del municipio de Oñati se autoriza para el año 2021 un gasto por importe total de catorce mil (14.000,00 ) euros, con cargo a la partida presupuestaria 1.0800.480.334.0001.2021 (355)

2. Plazo de presentación de solicitudes en el año 2021.

En el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su

biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Gobernu Juntari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

**Oñatin, 2021eko martxoaren 12an. Alkateak**

Diligentzia: Iragarkia 2021eko martxoaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman da(58 zkia) eta laguntza eskaerak aurkezteko epea apirilaren 29an bukatzen da.

publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante la Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

**Oñati, a 12 de marzo de 2021.—la Alcaldesa**

Diligencia: El presente anuncio se ha publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 29 de marzo de 2021 ( nº 58) y el plazo para presentar las solicitudes finaliza el 29 de abril.

Oñatin, 2021eko martxoaren 29an.
Udal Idazkariak

OÑATIKO UDALA